

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Gasteizko turismoa dinamizatzeko eta hiria promozionatzeko dirulaguntzak emateko deialdi publikoa eta hori arautuko duten berriazko oinarriak

2020ko abenduaren 11n onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. 2020ko abenduaren 30eko ALHAOn (148. zk.) argitaratu ziren oinarri orokor haiek. Udalaren webgunean kontsulta daitezke (www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Deialdira aurkeztu nahi duten enpresek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko eskabideak non eta nola aurkeztu, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten erakunde eskatzaileek, dirulaguntzak nola justifikatu behar diren, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

2021eko irailaren 24an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zituen Gasteizko turismoa sustatzeko eta hiria promozionatzeko dirulaguntzak emateko deialdi publikoa eta hori arautzeko berriazko oinarriak. Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, denak jakinaren gainean egon daitezzen:

1. oinarria. Dirulaguntzen ildoak

Gasteizko turismoa dinamizatzeko eta hiria promozionatzeko dirulaguntzak.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Tokiko turismoa dinamizatzen eta Gasteiz kanpoan promozionatzen laguntzeko proiektuak eta ekitaldiak sortu eta garatzearekin lotutako jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko, juridikoak nahiz legez eraturako erakundeei —elkarren arteko lehia baliatuz— laguntza ekonomikoak emateko baliatuko diren baldintzak arautzea dute xede oinarri hauek.

Bi ildo hauetakoren batean eskuratu ahalko dira laguntzak:

1. ildoak: Gasteiz egoitatzat izango duten biltzarrak edo ekitaldiak antolatzea.

Biltzarrak, jardunaldiak, mintegiak eta ekitaldiak antolatzea lagunduko da diruz, haien originaltasunagatik edo ezaugarriengatik beste hiri, erkidego edo herrialde batzuetako bisitariak erakartzen dituztelarik.

Ez dira diruz lagunduko: kirol, kultura edo aisialdiko jarduera hutsak; galak eta desfileak; sariak; lanerako prestakuntza edo etengabeko prestakuntza arautuarekin lotutako jarduerak; ekitaldi akademiko, erlijiozko, politiko edo sindikalak; edo erakunde eskatzaileko bazkideei bakarrik zuzentzen zaizkienak.

2. ildoak: Gasteiz kanpoan promozionatzea turismo-helmuga iraunkor gisa.

Diruz lagunduko dira Gasteizen egiten diren ekitaldiak, jaialdiak edo jarduerak kanpoan promozionatu eta komunikatzeko ekintzak barne hartzen dituztenak, estatuko zein nazioarteko merkatuetan hiriaren irudia sustatzeko erreferentziatzeko helmuga turistiko, kultural eta enogastromonomiko iraunkor gisa.

Hauek sartzen dira atal honetan:

- Azoka eta txapelketetan parte hartzea.
- Gasteizko udalerritik kanpo zuzeneko aurkezpenak egitea.

- Hemengoak ez diren preskriptoreak hirira etortzea proiektuari zabalkundea emateko.
- Komunikazio-kanpaina garatzea online eta offline.

Ez dira diruz lagunduko sarien promozioa; lanerako prestakuntza edo etengabeko prestakuntza arautuarekin lotutako jarduerak; ekitaldi akademiko, erlijiozko, politiko edo sindikalak; edo erakunde eskatzaileko bazkideei bakarrik zuzentzen zaizkienak.

3. oinarria. Pertsona edo erakunde onuradunen betebeharrak

Pertsona fisikoak, juridikoak nahiz legez eraturak dauden eta helbidea Gasteizen duten erakundeak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, baldintza hauek betetzen dituztelarik:

– Enpresaren egoitza soziala eta fiskala Gasteizko udalerrian edukitzea. Salbuespen gisa ez da eskatuko egoitza soziala eta fiskala Gasteizen izatea, laguntzaren xede den proiektua hiriko sektore turistikorako interes berezikotzat jotzen bada, edo horrekin zuzenean lotuta badago.

– Administrazio-bidean edo bide penalean zigortua eta laguntza publikoak eskuratzeko aukeratik apartatua ez egotea, ezta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikulua 2. eta 3. ataletan aurreikusitako gainerako zirkunstantzietako batean ere, hots, dirulaguntzen onuradun izatea galarazten duen zirkunstantziaren batean.

– Baldintza horiek dirulaguntzaren prozesu osoan zehar betetzea (dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean).

Nolanahi ere, laguntza hauetatik kanpo geratzen dira administrazio publikoak, korporazio publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak.

Hori guztia Gasteizko Udalaren 2021erako dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorretan xedatutakoaren arabera (2020ko abenduaren 30eko 148. ALHAOn argitaratuak).

4. oinarria. Diruz lagun daitezkeen ekintzak

2021eko otsailaren 1etik 2022ko urtarrilaren 31ra bitartean egiten diren jarduerak eskuratu ahalko dituzte dirulaguntzak, bi ildo hauetako batean jasotakoarekin bat badatoz:

1. ildoak: Gasteiz egoitza izango duten biltzarrak edo ekitaldiak antolatzea.

– Etorkizunean hirian egin daitezkeen biltzar edo jardunaldi espezifikoetarako hautagaitza-proiektuei lotutako zereginetako gastuak: online eta offline diseinuak, aurkezpenetarako leku-aldatzeak, alderantzizko eta zuzeneko jardunaldietako izen-emateak (kasu horretan, erakunde sustatzailea eta antolatzailea zehaztu behar dira).

– Adierazitako epean egin diren biltzar edo ekitaldiak erakarri, sortu, sustatu eta gauzatzeko gastuak.

– Proiektuaren garapenarekin zuzenean lotutako zerbitzu tekniko eta profesionalen gastuak.

– Berariaz proiekturako diren espazioen alokairua (erakunde onuradunaren egoitza sozialaren alokairua kanpo) eta horren zeharkako gastuak.

– Sustapen-materiala diseinatu, egin, maketatu eta itzultzeko gastuak: kontzeptu honetan sartuko dira diseinu grafikoari, liburuxken eta kartelen elaborazioari, argazki- eta film-funtsei eta bideoei dagozkienak, eta web-diseinua, bannerrak, web-orriak, frameak, pop upak eta beste komunikazio-elementu batzuk sortzeari dagozkionak. Digitalki banatzeko euskarrien diseinua lehenetsiko da, material suntsikorren aurretik.

2. ildoak: Kanpoan promozionatzea Gasteizen egiten diren eta hiriaren irudia turismo-helmuga iraunkor gisa sustatzen duten ekitaldiak.

– Promozioa on line egiteko gastuak. Kontzeptu honen barruan hauek onartuko dira: marketin programatikoa, bilatzaileetako publizitatea (SEM eta SEO), posta elektronikoko bidezko marketina, gizarte sareetako publizitatea (Facebook, Youtube, Instagram...), edukien marketina (branded content eta inbound marketing), ...

– Ekitaldiak beste hedabide batzuetan zabaltzeko gastuak. Kontzeptu honetan sartuko dira irriati-, telebista- eta prentsa-iragarkiak, errotuluak, hainbat lekutan jarritako publizitatea (hezie-tan, hiri-altzarietan, garraioetan, igogailuetan...) eta abar. Era berean barne hartzen ditu prentsa, telebista edo irratietako elkarrizketa, programa edo artikuluei dagozkien gastuak.

– Proiektuaren garapenarekin zuzenean lotutako zerbitzu tekniko eta profesionalen gastuak.

– Proiektuko parte-hartzaileen bidaiak-gastuak, ostatua eta dietak, baita hiria bisitatzen duten kanpoko preskriptoreenak ere.

2022ko urtarrilaren 31 baino lehen behar bezala justifikatuta dauden ordainketek bakarrik jaso ahalko dute dirulaguntza.

Ez dira diruz lagunduko:

Oro har, honako hauek ez dira diruz laguntzeko gastutzat joko:

– Deialdi honen 4. oinarrian diruz lagundu daitezkeen gastuen artean berariaz sartuta ez dagoen edo diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten ez dion edozein kontzeptu.

– Adierazitako jarduerari dagozkien zerga edota tasak, gainordainak eta administrazio-zi-gorrak.

– Onuradunen ohiko funtzionamendu-gastuak.

– Informatika- eta telefonia-ekipamenduak.

– 50,00 eurotik beherako gastuak.

Ematen diren laguntzak bi ildoetako edozeinetan aurkeztutako proiektuarekin lotuta ondatsun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuei baino ezingo zaizkie egotzi, eta inola ere ez enpresa antolatzailearen inbertsio edo amortizazioei.

5. oinarria. Baliabide ekonomikoak

2021eko udal aurrekontuko 08.23.4331.471.37 partidaren kontura –"dinamizazio ekonomikorako laguntzak" finantzatuko dira deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak; guztira 100.000,00 izango dira: 70.000,00 euro 1. ildorako eta 30.000,00 euro 2. ildorako.

Deialdia ebatzi eta dirulaguntzak eman ondoren ildoetako batean erabilgarri dagoen zenbatekoa agortzen ez bada, soberako kopurua beste ildoari gehitu ahalko zaio beharrezkoa izanez gero, eta hala adieraziko da berariaz hautatze eta jarraipen batzordearen aktan.

Itzuli behar ez diren dirulaguntzak dira.

6. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek –alde aurretik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen laburpen-iragarkia argitaratuko da–.

Deialdia indarrean jartzen delarik hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2022ko urtarrilaren 31n bukatuko.

Eskabideak eta agiriak Herritarrei laguntzeko bulegoetan, edo Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan aurkeztu ahalko dira; orobat aurkeztu ahalko dira legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Eskabidea postaz bidaltzen bada, mezu elektroniko bat igorri ahalko da bidalketa horren berri emateko, bidalketaren ordezkagiria erantsita, helbide honetara: congresos@vitoria-gasteiz.org.

Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorretan jasotakoa gorabehera –2020ko abenduaren 30eko ALHAOn (148. zenbakia) argitaratu ziren–, enpresa eskatzaileek 15. oinarrian zehaztutako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Enpresa bakoitzak eskabide bakarra egin beharko du, proposatutako ekintza-kopurua gora-behera (gehienez bi ildo bakoitzeko). Enpresa bakoitzeko dossier bakarra tramitatuko da.

Enpresa edo pertsona interesdunek eskabidea aurkezteak, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

7. oinarria. Ebatzi eta jakinarazteko epea

Prozeduraren ebazpena eman eta argitaratzeko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, dirulaguntza-eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunaren biharamunetik. Eskabideak ezetsizat jo ahal izango dituzte interesdunek, administrazioaren isiltasuna dela medio, baldin eta aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko epea igarotzen delarik berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada —urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren ildotik—.

ALHAOren eta Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez egingo dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak, betiere Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraituz.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Gasteizko Udalaren gardentasun atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak; guztia ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa gorabehera.

8. oinarria. Balioespen-irizpideak

Aurkezten diren proiektuak irizpide hauen arabera balioetsiko dira:

1. ildoak: Gasteiz egoitza izango duten biltzarrak, jardunaldiak edo ekitaldiak antolatzea. (Guztira: 100 puntu).

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	GEHIENOKO PUNTUAZIOA
Biltzar, jardunaldi edo ekitaldiaren ezaugarriak	45
- Eremu geografikoa (lokala, estatukoa, nazioartekoa)	
- Parte-hartzaileen kopurua (bertaratuak, streaming bidez)	
- Maiztasuna eta data (iraupena, bertan egingo diren gauen kopurua, garaia)	
- Enpresa lokalen partaidetza, proiektuan	
- Ekitaldiak etorkizunean beste jardunaldirik ekartzeko aukera	
Jarduera osagarriak	20
- Hiria eta bertako turismo- eta merkataritza-baliabideak nahiz ostalaritzaren arlokoak ezagutera ematen dituzten jardueren kopurua	
- Horietako parte-hartzaileen kopurua	
Sustatzea eta posizionatzea	15
- Biltzar, jardunaldi edo ekitaldiaren zabalkundea, egin aurretik nahiz ondoren, hedabide espezializatuetan eta orokorretan	
- Jardueren maiztasuna eta aurrekontua	
- Gasteiz turismo-helmuga iraunkor gisa posizionatzea, sustapen-tresna eta -euskarrietan	
Entitate eskatzailearen balioespena	10
- Ibilbidea	
- Proiektzioa (maila lokalean, Estatuan, nazioartean)	
Iraunkortasuna	10
- Biltzar, jardunaldi edo ekitaldiaren iraunkortasun-plana (parte-hartzaileak inplikatzeko jarduerak)	
- Biltzar, jardunaldi edo ekitaldiak ingurumenean izango duen eragina konpentsatzeko neurriak	

Dirulaguntza jaso ahal izateko, aurkeztutako proiektuek gutxienez 50 puntu lortu beharko dute aurreko irizpideen arabera.

2. ildo: Gasteiz kanpoan promozionatzea turismo-helmuga iraunkor gisa. (Guztira: 100 puntu).

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	GEHIENKO PUNTAZIOA
Gasteizko turismoa sustatzea	50
- Eremu geografikoa (eskualdea, Estatua, nazioartea)	
- Xede-publikoa / espero diren inpaktuen kopurua	
- Jardueren maiztasuna eta aurrekontua	
- Erabiliko diren sustapen-tresnak (lineatik kanpo)	
- Erabiliko diren sustapen-tresnak (linean)	
- Gasteiz turismo-helmuga iraunkor gisa posizionatzea, sustapen-tresna eta -euskarrietan	
Ekitaldiaren ezaugarriak	30
- Gasteizen egindako edizioen kopurua	
- Parte-hartzaileen kopurua	
- Ekitaldiak hirian duen inpaktua	
Entitate eskatzailearen balioespena	10
- Ibilbidea	
- Proiektzioa (maila lokalean, Estatuan, nazioartean)	
Iraunkortasuna	10
- Arlo hauetako ekintzak: publizitate-etika, spam-aren kontrakoak, publizitate-hartzaileen eskubideak errespetatzea, ingurumen-iraunkortasuna	

Dirulaguntza jaso ahal izateko, aurkeztutako proiektuek gutxienez 50 puntu lortu beharko dute aurreko irizpideen arabera.

9. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura, eta zenbatekoaren kalkulua

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 22.1 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik. Hortaz, alderatu egingo dira aurkezten diren proiektuak, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, 10. oinarrian finkatutako balioespen-irizpideen arabera.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan arautzen diren laguntzak kudeatzea. Hautatze- eta Jarraipen-batzorde bat eratu da horretarako, honakoek osatuta: lehendakaria: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendari Araceli De la Horra –edo hark ordeztuko izendatzen duena–; kidea: Biltzar eta Turismo Zerbitzuko buru Javier Estebaranz; idazkaria: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren Saileko Administrazio Orokorreko teknikari Ignacio Cepeda. Batzordeko kideak falta badira edo gaixorik badaude, Biltzar eta Turismo Zerbitzuko teknikariek ordeztuko dituzte.

Zeregin hauek izango ditu Hautatze eta Jarraipen Batzordeak:

- Jasotako eskabideen balorazio teknikoak aztertzea, Biltzar eta Turismo Zerbitzuko teknikariek aldeztu aurretik txostena egin ondoren.
- Eskabideak onartzeko edo ukatzeko/atzera egiteko proposamenak egitea eta organo instrukzio-egileari helaraztea, Tokiko Gobernu Batzarrak ones ditzan.
- Oinarri hauek interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea.

Batzordeak proposamena egin ondoren, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia dela medio eman edo ukatuko dira zaizkie laguntzak enpresei, horretarako ahalmena Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera.

Deialdian adierazitako betekizunak bete arren aurrekontu-partida agortzearen ondorioz onuradun suertatu ez diren eskatzaileen zerrenda ordenatua erantsi ahalko da ebazpenean. Onuradun suertatu den enpresaren batek dirulaguntzari uko eginez gero, edo justifikazioaren ondorioz emandako dirulaguntzak itzuli beharrik gertatuz bero, dirulaguntzak eman dituen organoak erabaki ahal izango du lehendik dirulaguntza lortu ez duten enpresa eskatzaileei dirulaguntza ematea, zerrendan ageri den hurrenkera aintzat hartuta.

10. oinarria. Dirulaguntza kalkulatzea

Onartutako gastu eta inbertsioen ehuneko 50ekoa izango da, gehienez, dirulaguntzaren portzentajea, baldin badagokie. Edonola ere, aipatutako ehunekoak aplikatuz lor daitekeen gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan 15.000,00 eurotik gorakoa 1 ildoan, eta 6.000,00 eurotik gorakoa 2 ildoan, proiektu bakoitzerako.

Ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituz emango dira dirulaguntzak, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte. Baldin eta geratzen den saldoa hurrengo eskabiderako aski ez bada, geratzen den kreditua emango zaio horri.

11. oinarria. Ordaintzeko modua

Dena batera ordainduko da dirulaguntza, deialdia argitaratu ondoren, eta 14. oinarrian adierazitako moduan justifikatu ondoren.

Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da dirulaguntza, onuradunak eskabidean adierazten duen kontu korrontean.

Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona edo erakunde onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu. Nolanahi ere, ezingo da dirulaguntza ordaindu, harik eta pertsona edo erakunde onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzuli behar delako ebazpen baten ondorioz zordun bada ere.

12. oinarria. Pertsona edo erakunde onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresek betebeharrak hauek izango dituzte:

– Betebeharrak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea Udalaren aurrean, baita jarduera burutu dela eta dirulaguntza ematea ekarri zuen helburua bete dela ere.

– Udalaren egiaztatze ekintzen mende jartzea, baita haren Kontu-hartzailatza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoen mende ere.

– Udal dirulaguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako laguntza edo dirulaguntzarik eskatu edota jasoz gero, Udalari jakinaraztea.

– Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Udalari jakinaraztea.

– Laguntza eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren eskura jartzea.

– Emandako laguntza onartzea. Hamar eguneko epean pertsona edo erakunde onuradunek laguntzari berariaz uko egiten ez badiote — eman izanaren jakinarazpena jasotzen duten egunetik kontatuta —, onartu egiten dutela ulertuko da.

– Laguntza ildo honen kargura finantzatzen diren jarduerak leku nabarmenean agerrarazi beharko dute Gasteizko Udalaren babesletza. Horretarako, Biltzar eta Turismo Zerbitzuarekin koordinatu beharko dituzte jendaurreko komunikazio eta aurkezpen ekintza guztiak.

– Ondasun-erkidegoen edo elkarte zibilen kasuan, horietan partaidetza duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Nolanahi ere, taldea ordezkaturako duen pertsona bat izendatu beharko da, onuradun den aldetik hari dagozkion betebeharrak betetzeko nahikoa ahalmen aitortzen zaiolarik. Emandako dirulaguntza itzuli egin beharko da, elkartearen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea baino lehen desegiten bada.

13. oinarria. Nahitaezko agiriak

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie oinarri hauen bidez araututako dirulaguntza-eskabideei:

1. Erakunde eskatzailea egiaztatu eta identifikatzeko agiriak:

– Eskabide-orria eta zinpeko aitortpena: I. eranskina (www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak web-orrian eskuragarri).

– Enpresaren deskribapen laburra.

– Ekonomia Jardueren gaineko Zergan altan egotearen ziurtagiria.

Pertsona fisikoa bada: nortasun-agiriaren fotokopia.

Pertsona juridikoen kasuan: IFKren kopia.

– Enpresaren eratze-eskrituren kopia.

– Ordezkatze-ahalordearen kopia.

– Ordezkatze-ahalordea duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia.

Irabazi-asmorik gabeko erakundea bada: IFKren kopia.

Erakundearen estatutuen fotokopia.

– Gasteizko kargu eta kideen zerrenda zenbakitua eta eguneratua, laguntza-eskabidearen datan.

– Ordezkatze-ahalordea duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia.

Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak betetzeari dagokionean, ofizios begiraturako da pertsona edo erakunde eskatzailea egunean dagoen.

Eskabidea aurkezteak Gasteizko Udalari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko ziurtagiriak zuzenean hartzeko baimena ematea dakar berekin (I. eranskina). Hala ere, erakunde eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimen hori. Horrela bada, Arabako Foru Aldundiarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak beteta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Erakunde eskatzaileak ez badu esleitua Gizarte Segurantzaren sistemako inongo erregimeneko kotizazio-konturik, bertako bazkide guztiek egon beharko dute egunean Gizarte Segurantzaren.

2. Dirulaguntza eskuratzeko baldintzak bete direla justifikatzeko agiriak.

– Egindako jardueren eta lortutako emaitzen oroitidazkia (10 A4 orri gehienez, proiektuari buruzko testu eta irudiekin).

– Txosten ekonomikoa, hauek barne:

1. Jardueretako bakoitzaren gastuen zerrenda, hauek zehaztuta: enpresa hornitzailea (enpresaren IFZ eta izen soziala), faktura egiteko data, kontzeptua eta zenbatekoa, eta ordaintzeko data.

2. Jatorrizko fakturak, aurreko atalean zehazten direnekin bat datozenak.

3. Ordaindu izana egiaztatzeko agiriak. Aurkeztutako fakturen ordainketaren banku-egiaztagiriak. Ordainketa-egiaztagiriak aurkezteko epea 2022ko otsailaren 28an bukatuko da.

Ez da onartuko banku-egiaztagiririk baldin eta enpresa eskatzaileak hornitzaileari faktura ordaindu diola argi eta garbi gera dadin nahikoa daturik jasotzen ez bada. Oro har, ez dira egiaztagiri gisa onartuko internet bidez eskuratutakoak, banku-erakundeak balioztatuta edo zigilatuta ez badaude.

Ez dira onartuko 50 eurotik beherako gastuak.

Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jaso diren laguntzei buruzko erantzukizunpeko aitorpena.

Erakunde onuradunak agiri bidez justifikatu beharko du 2022ko otsailaren 28a baino lehen, ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren xedea bete direla.

Udalaren webgunean —www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak— eskura daitezke justifikatzeko formularioak (eranskinak).

Justifikatzeko emandako epea amaitu aurretik benetan ordaindutakoa joko da egindako gastutzat. Nolanahi ere, egindako gastuak egiaztatzeko fakturak gehienez 2022ko urtarrilaren 31n egindakoak izango dira.

Jarduera burutu eta justifikatzeko epea bukatzen delarik egindako gastuen zati bat baino ordaindu ez bada, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko da, kobratzeko eskubidea galtzeari dagokionez.

14. oinarria. Akatsak zuzentzea

Dirulaguntza-eskabideari ez bazaizkio deialdian galdatutako agiriak eransten, hamar eguneko epea emango zaie eskatzaileei falta zaizkien agiriak aurkezteko (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua ildotik), eta halaber ohartaraziko hala egin ezean eskabidea bertan behera utzitzat joko dela.

15. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateraezintasuna

Programa honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu bererako ematen dituen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, diruz lagundutako jardueraren kostua gairitzen ez bada. Ondorio horietarako, diruz lagundutako jardueraren kostutzat joko dira aurkeztu, onetsi eta justifikatutako gastuak.

Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntza txikitu egingo da, soberako zenbatekoan.

Hori guztia, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean xedatutakoarekin bat, bereziki, 887/2006 EDaren 32. 33. eta 34. artikuluekin eta 37.3 artikuluko 3. puntuarekin bat).

16. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Gasteizko Udalak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko suertatzen diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahal izango ditu, eta eskatzen dien informazio osagarri guztia eman beharko diote enpresa onuradunek.

17. oinarria. Laguntzak itzultzea, eta horretarako prozedura

Dirulaguntza emateko ebazpena baliogabetu ahal izango da, eta osorik nahiz zati bat itzultzeko eskatu, Dirulaguntzen Lege Orokorren 36. eta 37. artikuluetan eta aplikatzekoak diren gainerako arau orokorretan adierazten diren kasuetan, baita arau hauetan jasotzen diren betebeharrak betetzen ez badira ere.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen II. tituluko II. kapituluaren ezarritakora egokituko da itzultzeko prozedura. Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak emango du dirulaguntza itzultzea erabakitzen deneko ebazpena.

Behar ez bezala jasotako funts publikoek gainera, dirulaguntza ordaintzen den egunetik eta hura itzuli beharra dagoela erabakitzen den unera arteko aldiari dagozkion berandutze-interesak galdutako dira. Emandako dirulaguntzatik itzuli beharreko kopuruaren gainean kalkulatu da galdutu beharreko interesa.

Zuzenbide publikoko sarreratzat joko dira itzuli beharreko zenbatekoak, eta halako diru-sarrerari dagokienez Gasteizko Udalaren zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoaren arabera kobratuko dira.

Baldin eta erreklamaturako zenbatekoak ez bazaizkio itzultzen Gasteizko Udalari borondatezko aldiari, premiamendu-bideari ekingo zaio, kobratzeko, indarrean dagoen araudiaren ildotik.

18. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Araudia betetze aldera, Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailearen jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela —Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailearen jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek—. Horien gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 8an

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Orokorreko teknikaria
IGNACIO CEPEDA CRESPO

I. eranskina: Eskabide-agiria eta zinpeko aitortpena

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/32/22/93222.pdf>